

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2017 FORU DEKRETU PROIEKTUA, ren (e)koa. Honen bidez, aldaketak egiten dira 2005eko ekainaren 21eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 101/2005 Foru Dekretuan (dekretu horren bidez zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dira) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudian (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsi zuen).

Foru-dekretu honen xedea zenbait aldaketa egitea da, 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuan (dekretu horren bidez zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dira) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudian.

2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuari dagokionez, errazago bete ahal izateko elkarren laguntzari buruzko araudia eta, bereziki, Kontseiluaren 2015/2376 Zuzentaraua,

PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2017, de de , por el que se introducen modificaciones en el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas, propuestas previas de tributación y cláusula anti-elusión y en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre

El presente Decreto Foral tiene por objeto introducir determinadas modificaciones en el el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas, propuestas previas de tributación y cláusula anti-elusión y en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia.

En relación con el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, para facilitar el cumplimiento de la normativa sobre asistencia mutua y en particular de la Directiva 2015/2376 del



2015eko abenduaren 8koa (zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du, fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez), kontsultagileak eman beharreko informazio osagarri bat ezartzen da. Kontsultagileak informazio hori eman beharko du, hain zuzen, informazio-trukea egin behar denean, zergei buruzko kontsultak eta aurretiazko proposamenak direla-eta, beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiari dagokionez, jarraian aipatzen dira aldaketarik garrantzitsuenak.

Informazioa emateko betebeharra ezartzen zaie etxebizitzak erabilera turistikorako errentan eman edo lagatzen direnean bitartekari aritzen diren pertsoneri edo erakundeei.

Gainera, araudian jasotzen da erregistro-liburuak baliabide telematikoak erabiliz egiteari buruz legean zehazten dena.

Zerga-administrazioari informazioa ematera behartuta dauden subjektuen kasuan, aldatu egiten dira informazio hori eman behar dutenak. Hala, orain, Europar Batasuneko beste

Consejo, de 8 de diciembre de 2015, que modifica la Directiva 2011/16/UE en lo que respecta al intercambio automático y obligatorio en el ámbito de la fiscalidad, se introduce una información adicional que deberá suministrar el consultante en aquellas consultas tributarias y propuestas previas que deban ser objeto de intercambio de información con otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en cumplimiento de la citada normativa.

Por lo que se refiere al Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia a continuación se relacionan las modificaciones más relevantes.

Se establece una obligación de información para las personas o entidades que intermedien en el arrendamiento o cesión de viviendas con fines turísticos.

Asimismo se traslada al reglamento la especificación legal sobre la llevanza de libros registro por medios telemáticos.

En el ámbito de los sujetos obligados a suministrar información a la Administración tributaria se sustituye a los representantes de fondos de pensiones domiciliados en otro



estatu batean helbideratuta egonik Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak garatzen dituzten pentsio-funtsen ordezkarien eta Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten aseguru-erakundeen ordezkarien ordezkari, pentsio-funtsek eurek edo, hala badagokio, haien erakunde kudeatzaileak eta aseguru-erakundeak berak aurkeztu beharko dute informazioa, arlo horretan legez dagoen legezko arauketarekin bat.

Azkenik, aldatu egiten dira Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko kontuan hartzen dituen inguruabarrak.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira

Estado miembro de la Unión Europea que desarrollen en España planes de pensiones de empleo y a los representantes de entidades aseguradoras que operen en España en régimen de libre prestación de servicios, por lo propios fondos de pensiones, o en su caso, su entidad gestora y por la propia entidad aseguradora, en consonancia con la regulación legal de esta materia.

Finalmente, se modifican las circunstancias que posibilitan la rehabilitación por la Administración tributaria del número de identificación fiscal.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2017ko XXXXren XX(e)ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de de 2017,

#### XEDATZEN DUT:

#### DISPONGO:

1. artikulua. *101/2005 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa; horren bidez, zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dira.*

Artículo1. *Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas, propuestas previas de tributación y cláusula anti-elusión.*

Aldaketa hauek egiten dira 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuan (dekretu horrek zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu zituen):

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas, propuestas previas de tributación y cláusula anti-elusión:

Bat. d) letra gehitzen zaio 3. artikulua 1. zenbakiari; hau da haren edukia:

Uno. Se añade una nueva letra d) al apartado 1 del artículo 3, con el siguiente contenido:

«d) Kotsultarekin edo kontsulta horren erantzunarekin informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gairako erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolahi ere, zerga-administrazio eskudunak ofizioz hartu dezake aintzat inguruabar hori.

“d) En el caso de que la consulta o la contestación de la misma deba ser objeto de intercambio de información con otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en virtud de un instrumento de asistencia mutua, se declarará dicha circunstancia con carácter expreso, sin perjuicio de la apreciación de oficio por parte de la



Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

i) Kontsultagilea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo kode baliokideak.

ii) Enpresa-jardueraren deskripzioa, bai eta egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio-segidena ere. Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

iii) Kontsultaren xede den transakzioak edo eragiketak eragin liezaiekeen estatuak.

iv) Kontsultaren erantzunak eragin liezaiekeen beste estatu batzuetako pertsona egoiliarrak.

v) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.»

Bi. e) letra gehitzen zaio 9. artikuluko 2. zenbakiari, eta honela geratu da idatzita:

«e) Zerga-ordainketako aurretiazko

Administración tributaria competente para la contestación de la consulta, y se consignarán, además, los siguientes datos:

i) Identificación del grupo mercantil o fiscal al que pertenece, en su caso, el consultante, incluyendo los números de identificación fiscal o códigos equivalentes, en su caso, de todas las entidades no residentes afectadas.

ii) Descripción de la actividad empresarial o las transacciones o series de transacciones desarrolladas o a desarrollar. En cualquier caso, dicha descripción se realizará con pleno respeto a la regulación del secreto comercial, industrial o profesional y al interés público.

iii) Estados que pudieran verse afectados por la transacción u operación objeto de consulta.

iv) Personas residentes en otros Estados que pudieran verse afectadas por la contestación a la consulta.

v) Otros datos que fueran exigibles por la normativa de asistencia mutua aplicable.”

Dos. Se añade una nueva letra e) al apartado 2 del artículo 9, que queda redactada en los siguientes términos:

“e) En el caso de que la propuesta previa de



proposamenarekin edo hari buruzko ebazpenarekin informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolana ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga-administrazioak ofizioz hartu dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

i) Zerga-ordainketako aurretiazko proposamena aurkezten duen erakundea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo kode baliokideak.

ii) Enpresa-jardueraren deskripzioa, bai eta egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio-segidena ere. Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

iii) Proposamenaren xede den transakzioak edo eragiketak eragin liezaiekeen estatuak.

iv) Prozeduraren ebazpenak eragin liezaiekeen beste estatu batzuetako pertsona egoiliarak.

tributación o la resolución sobre la misma deba ser objeto de intercambio de información con otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en virtud de un instrumento de asistencia mutua, se declarará dicha circunstancia con carácter expreso, sin perjuicio de la apreciación de oficio por parte de la Administración tributaria competente para la resolución del procedimiento, y se consignarán, además, los siguientes datos:

i) Identificación del grupo mercantil o fiscal al que pertenece, en su caso, la entidad que presenta la propuesta previa de tributación, incluyendo los números de identificación fiscal o códigos equivalentes, en su caso, de todas las entidades no residentes afectadas.

ii) Descripción de la actividad empresarial o las transacciones o series de transacciones desarrolladas o a desarrollar. En cualquier caso, dicha descripción se realizará con pleno respeto a la regulación del secreto comercial, industrial o profesional y al interés público.

iii) Estados que pudieran verse afectados por la transacción u operación objeto de la propuesta.

iv) Personas residentes en otros Estados que pudieran verse afectadas por la resolución del



v) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.»

2. artikulua. *Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena.*

Aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori):

Bat. 37. artikulua 2. zenbakiaren e) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«e) Pentsio-planei edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei kontribuzioak edo ekarpenak egiten zaizkienean eta haien ondoriozko prestazioak jasotzen direnean. Kasu horietan, identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar zaie planak atxikita dauden gizarte-aurreikuspeneko erakundeen edo pensio-funtsen erakunde kudeatzaileei edo Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta egonik Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pensio-planak

procedimiento.

v) Otros datos que fueran exigibles por la normativa de asistencia mutua aplicable.”

Artículo 2. *Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre.*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre

Uno. Se modifica la letra e) del apartado 2 del artículo 37, quedando redactada como sigue:

“e) Cuando se realicen contribuciones o aportaciones a Entidades de Previsión Social Voluntaria, o a Planes de Pensiones o se perciban las correspondientes prestaciones. En estos casos, se deberá comunicar el número de identificación fiscal a las entidades gestoras de las Entidades de Previsión Social Voluntaria o de los Fondos de Pensiones a los que dichos planes se hallen adscritos o al representante de los fondos de pensiones domiciliados en otro Estado miembro de la



garatzen dituzten pentsio-funtsen ordezkarietara edo, hala badagokio, funtsen erakunde kudeatzaileei, eta zenbaki hori jarri behar da ekarpenak egiteko betebeharra eta prestazioak onartzea formalizatzen diren agirietan.»

Bi. 39. artikulua 1. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Tributu bakoitzaren berezko araudian hala xedatuz gero, zergapekoek zuzen egin eta gorde beharko dituzte araudiotan ezartzen diren erregistro-liburuak. Era berean, araudi horretan zehaztuko da erregistro-liburuak zer kasutan aurkeztu edo egin behar diren aldizka eta baliabide telematikoen bitartez.

Erregistro-liburuak zerga-egoitzan eduki behar dituzte zergapekoek, tributu bakoitzaren berezko araudian bestetik xedatu ezean.»

Hiru. 50. artikulua 3. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Aseguru-erakundeek —Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-erakundeek barne— eta finantza-erakundeek urteko aitortpena aurkeztu behar dute honako informazio

Unión Europea que desarrollen en España planes de pensiones de empleo sujetos a la legislación española o, en su caso, a sus entidades gestoras, y deberá figurar aquél en los documentos en los que se formalicen las obligaciones de contribución y el reconocimiento de prestaciones.”

Dos. Se modifica el apartado 1 del artículo 39, quedando redactado como sigue:

“1. Cuando la normativa propia de cada tributo lo prevea, los obligados tributarios deberán llevar y conservar de forma correcta los libros registro que se establezcan. Igualmente, dicha normativa determinará los casos en los que la aportación o llevanza de los libros registro se deba efectuar de forma periódica y por medios telemáticos.

Los libros registro deberán conservarse en el domicilio fiscal del obligado tributario, salvo lo dispuesto en la normativa de cada tributo.”

Tres. Se modifica el apartado 3 del artículo 50, quedando redactado como sigue:

“3. Las entidades aseguradoras, incluidas las entidades aseguradoras domiciliadas en otro Estado miembro del Espacio Económico Europeo que operen en España en régimen de libre prestación de servicios, así como las entidades financieras deberán presentar una





honekin:

a) Abenduaren 31n bitziza-aseguru baten hartzaile izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia; egun horretako erreskate-balioa ere adierazi behar da.

b) Kapital bat (dirua, ondasun higigarriak zein higiezinak) ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako zein biziarteko errenta baten onuradun izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia; errenta horrek egun horretan duen kapitalizazio-balioa adierazi behar da.

Bitziza-aseguruak Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen-egunean izan duten erreskate-balioaren arabera konputatuko dira.

Kapital bat (dirua, ondasun higigarriak zein higiezinak) ematearen ondorioz eratutako aldi baterako edo biziarteko errentak Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen-egunean izan duten kapitalizazio-balioaren arabera konputatu behar dira, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan pentsioak eratzeari buruz ezarritako erregelak aplikatuta.»

Lau. 64. artikulua c) letra aldatzen da, eta

declaración anual comprensiva de la siguiente información:

a) Nombre y apellidos y número de identificación fiscal de los tomadores de un seguro de vida a 31 de diciembre, con indicación de su valor de rescate a dicha fecha.

b) Nombre y apellidos y número de identificación fiscal de las personas que sean beneficiarias a 31 de diciembre de una renta temporal o vitalicia, como consecuencia de la entrega de un capital en dinero, bienes muebles o inmuebles, con indicación de su valor de capitalización a dicha fecha.

Los seguros de vida se computarán por su valor de rescate en el momento del devengo del Impuesto sobre el Patrimonio.

Las rentas temporales o vitalicias, constituidas como consecuencia de la entrega de un capital en dinero, bienes muebles o inmuebles, deberán computarse por su valor de capitalización en la fecha del devengo del Impuesto sobre el Patrimonio, aplicando las mismas reglas que para la constitución de pensiones se establecen en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.”

Cuatro. Se modifica la letra c) del artículo 64,



honela geratzen da idatzita:

«c) Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta egonik Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak garatzen dituzten pentsio-funtsek; funtsei atxikitako planen partaideak banaka sartu behar dituzte, bai eta haientzat egindako ekarpenen zenbatekoa ere (partaideek zuzenean eurentzat egindakoak eta baimendutako pertsonak edo planen sustatzaileek egindakoak batuta).»

Bost. 65 sexties artikulua gehitzen da; hau da haren edukia:

«65 sexties artikulua. *Erabilera turistikorako etxebizitzaren errentamenduari buruzko informazioa emateko betebeharra.*

1. Etxebizitzak erabilera turistikorako — hurrengo zenbakian ezarritakoaren arabera— lagatzen dutenen eta lagapen-hartzaileen artean bitartekari aritzen diren pertsonak eta erakundeak, aldian-aldian, aitorten informatiboa aurkeztu beharko dute ondasun higiezinak edo ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruz.

2. Artikulu honetan zehazten den aitorten informatiboaren ondorioetarako, Eusko Legebiltzarraren 2016ko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen, Turismoaren Legearen, 53.

quedando redactada como sigue:

“c) Los fondos de pensiones domiciliados en otro Estado miembro de la Unión Europea que desarrollen en España planes de pensiones de empleo sujetos a la legislación española, que incluirán individualmente los partícipes de los planes adscritos a tales fondos y el importe de las aportaciones a los mismos, bien sean efectuadas directamente por ellos, por personas autorizadas o por los promotores de los citados planes.”

Cinco. Se añade un nuevo artículo 65 sexties, con el siguiente contenido:

“Artículo 65 sexties. *Obligación de informar sobre el arrendamiento de viviendas con fines turísticos.*

1. Las personas y entidades que intermedien entre los cedentes y cesionarios del uso de viviendas con fines turísticos en los términos establecidos en el apartado siguiente, vendrán obligados a presentar periódicamente una declaración informativa referente a los bienes inmuebles o derechos sobre bienes inmuebles.

2. A los exclusivos efectos de la declaración informativa prevista en este artículo, se entiende por uso de viviendas con fines turísticos las previstas en el apartado 1 del



artikuluaren zehazten diren kasuetan ulertuko da etxebizitza bat erabilera turistikorako dela.

Kontzeptu horretatik kanpo geratuko dira 53. artikuluan horren 4. zenbakian aipatzen diren etxebizitza-errentamenduak, batetik, eta, bestetik, ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubidea.

3. Bitartekaritzat joko dira aurreko zenbakian aipatzen den erabileraren lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko bitartekaritza-zerbitzua, kostu bidez edo dohain, ematen duten pertsonak edo erakundeak.

Bereziki, halakotzat joko dira plataforma kolaboratibo gisa eratuta dauden pertsonak edo erakundeak bitartekari gisa aritzen badira aurreko zenbakian aipatzen den erabilera-lagatzean eta informazio-gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoa buruzkoa da; horretarako ez da kontuan hartuko ea bitartekaritzaren xede den zerbitzua ematen duen edo ea zerbitzuaren inguruko baldintzak (esaterako, prezioa, aseguruak, epeak edo beste kontratu-baldintza batzuk) ezartzen dizkien zerbitzuaren lagatzaileei edo lagapen-hartzaileei.

artículo 53 de la Ley del Parlamento Vasco 13/2016, de 28 de julio, de Turismo.

Quedan excluidos de este concepto los arrendamientos de vivienda a los que se refiere el apartado 4 del citado artículo 53 y el derecho de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles.

3. Tendrán la consideración de intermediarios todas las personas o entidades que presten el servicio de intermediación entre cedente y cesionario del uso a que se refiere el apartado anterior, ya sea a título oneroso o gratuito.

En particular, tendrán dicha consideración las personas o entidades que constituidas como plataformas colaborativas intermedien en la cesión de uso a que se refiere el apartado anterior y tengan la consideración de prestador de servicios de la sociedad de la información en los términos a que se refiere la Ley 34/2002, de 11 de julio, de servicios de la sociedad de la información y de comercio electrónico, con independencia de que preste el servicio subyacente objeto de mediación o de la imposición de condiciones respecto de los cedentes o cesionarios del servicio en relación al mismo tales como precio, seguros, plazos u otras condiciones contractuales.



4. Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Erabilera turistikorako alokatutako etxebizitzaren titularraren identifikazioa, bai eta etxebizitza erabilera turistikorako lagatzeko erabiltzen den eskubidearen titularrarena ere.

Identifikazioa egiteko, izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman behar da.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira lagatzen den eskubidearen titulartzat: erabilera turistikorako lagatutako etxebizitzaren jabetza-eskubidearen titularrak, edo etxebizitza horien gaineko «multijabetza» kontratuen, txandaka aprobetxatzeko kontratuen, denbora partzialeko jabetza-kontratuen edo antzeko formulen kontratuen titularrak, edo etxebizitza horien gaineko errentamendu- edo azpierreantamendu-kontratuen edo bestelako erabilera- edo luperketa-eskubideen titularrak, baldin eta titularrok badira, azken buruan, etxebizitza horren erabileraren lagatzaileak.

b) Higiezinaren identifikazioa, katastroko erreferentzia edo zenbaki finkoa zehaztuta.

c) Pertsona edo erakunde lagapen-hartzaileen identifikazioa, bai eta etxebizitza turismorako

4. La declaración informativa contendrá los siguientes datos:

a) Identificación del titular de la vivienda alquilada con fines turísticos así como del titular del derecho en virtud del cual se cede la vivienda con fines turísticos.

La identificación se realizará mediante nombre y apellidos o razón social o denominación completa y número de identificación fiscal.

A estos efectos se considerarán como titulares del derecho objeto de cesión quienes lo sean del derecho de la propiedad, contratos de multipropiedad, aprovechamiento por turnos, propiedad a tiempo parcial o fórmulas similares, arrendamiento o subarrendamiento o cualquier otro derecho de uso o disfrute sobre las viviendas cedidas con fines turísticos, que sean cedentes, en última instancia, de uso de la vivienda citada.

b) Identificación del inmueble con especificación de la referencia catastral o número fijo.

c) Identificación de las personas o entidades cesionarias así como el número de días de



erabili duten egun kopurua ere.

Identifikazioa egiteko, izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman behar da. Identifikazio fiskaleko zenbakirik ez badago, ordena publikoko araudiak ezartzen duen identifikazio-agiriaren (besteak beste, pasaportearen) zenbakia erabiliko da identifikazioa egiteko.

Ondorio horietarako, etxebizitza erabilera turistikorako lagatzen dutenek zerbitzuaren onuradun direnen identifikazio-agiriaren — arestian adierazitakoaren— kopia bat gorde beharko dute.

d) Eskubidearen titularra den lagatzaileak etxebizitza erabilera turistikorako lagatzeko zerbitzua emategatik jasotako zenbatekoa; prestazioa doakoa bada, hala adierazi behar da.

5. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren agindu baten bidez onartuko da aitortpena aurkezteko eredia, eta agindu horretan bertan zehaztuko da noiz, nola eta non aurkeztu behar den aitortpena. Halaber zehaztu ahal izango dira xedapen hau betetzeko beharrezkoak diren beste neurri guztiak.

Sei. 69. artikulua 7. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

disfrute de la vivienda con fines turísticos.

La identificación se realizará mediante nombre y apellidos o razón social o denominación completa y número de identificación fiscal. En defecto de número de identificación fiscal la identificación se realizará con el número del documento identificador exigido por la normativa de orden público, entre otros, por el pasaporte.

A estos efectos, los cedentes del uso de la vivienda con fines turísticos deberán conservar una copia del documento de identificación de las personas beneficiarias del servicio, anteriormente señalado.

d) Importe percibido por el titular cedente del derecho por la prestación del servicio de cesión de la vivienda con fines turísticos o, en su caso, indicar su prestación gratuita.

5. Mediante orden del diputado foral de Hacienda y Finanzas se aprobará el correspondiente modelo de declaración, forma, plazo y lugar de presentación, así como cuantas otras medidas sean necesarias para el cumplimiento de esta disposición.

Seis. Se modifica el apartado 7 del artículo 69, quedando redactado como sigue:



«7. Identifikazio fiskaleko zenbaki bat ezeztatu ondoren, Zerga Administrazioak berriz ere gaitu ahal izango du, erabaki baten bidez. Erabakia artikuluko honen 4. zenbakian ezeztapen-erabakietarako ezarritakoari lotuz argitaratu behar da.

Identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko eskabideak bakarrik izapidetuko dira baldin eta egiaztatzen bada desagertu egin direla zenbaki hori ezeztatzea eragin zuten arrazoiak eta, sozietateen kasuan, komunikatzen bada, gainera, nork duen sozietatearen kapitalaren titulartasuna; halaber, osorik identifikatu behar dira sozietatearen legezko ordezkariak zein zerga-egoitza, eta sozietateak egingo duen jarduera ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa ere eman behar da. Baldintza horiek guztiak betetzen ez badira, eskabideak artxibatu egingo dira, besterik gabe.

Identifikazio fiskaleko zenbaki bat birgaitzeko eskabidea berariaz ebazten ez bada hiru hilabeteen, eskaera ukatutzat jo beharko da.»

Azken xedapenetatik lehena. *Gaikuntza*

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman

“7. La Administración tributaria podrá rehabilitar el número de identificación fiscal mediante acuerdo que estará sujeto a los mismos requisitos de publicidad establecidos para la revocación en el apartado 4 de este artículo.

Las solicitudes de rehabilitación del número de identificación fiscal sólo serán tramitadas cuando se acredite que han desaparecido las causas que motivaron la revocación y, en caso de sociedades, se comunique, además, quiénes ostentan la titularidad del capital de la sociedad, con identificación completa de sus representantes legales, el domicilio fiscal, así como documentación que acredite cuál es la actividad económica que la sociedad va a desarrollar. Careciendo de estos requisitos, las solicitudes se archivarán sin más trámite.

La falta de resolución expresa de la solicitud de rehabilitación de un número de identificación fiscal en el plazo de tres meses determinará que la misma se entienda denegada.”

Disposición final primera. *Habilitación*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación



ditzan.

del presente Decreto Foral.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrear jartzea*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrear, eta beraren artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak izango ditu.

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, con los efectos expresamente establecidos en su articulado.

Bilbon, 2017ko \_\_\_\_\_ ren  
(e)(a)n.

En Bilbao, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua  
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia  
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ